

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización



**Tolosaldeko Apattaerreka
Industria Lurra, SA**

2017





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 Kontabilitatea.....	10
III.2 Kontratazioa	10
IV. URTEKO KONTUAK.....	11
ERANSKINAK	15
A.1 Araudi aplikagarria	15
A.2 Ibilgetuko inbertsioak	16
A.3 Izakinak.....	16
A.4 Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.....	17
A.5 Taldeko enpresetan eta kide-tuetan eginiko epe laburreko inbertsioak	18
A.6 Langileria.....	18
A.7 Ustiapeneko beste gastu batzuk	19
A.8 Kontratuen analisia.....	19
ALEGAZIOAK	21



ABREVIATURAS	25
I. INTRODUCCIÓN.....	27
II. OPINIÓN.....	29
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	29
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	29
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	30
III.1 Contabilidad	30
III.2 Contratación	30
IV. CUENTAS ANUALES	31
ANEXOS	35
A.1 Normativa aplicable	35
A.2 Inversiones inmobiliarias	36
A.3 Existencias	36
A.4 Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar	37
A.5 Inversiones en empresas del grupo y asociadas a corto plazo.....	38
A.6 Personal.....	38
A.7 Otros gastos de explotación.....	39
A.8 Análisis de contratos.....	39
ALEGACIONES	41



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAEHONALTB	Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina.
KBA	Kontrataziorako barne aginpideak.
SPKLTB	Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina.
STC-ELS, SA	Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SA.
TAILSA	Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra, SA.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean Epaitegia) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Epaitegiaren Osoko Bilkurak onartutako Lanerako Planean jasotakoari jarraikiz, Tolosaldeko Apattaerreak Industria Lurra SAREN (aurrerantzean TAILSA) 2017ko ekitaldiaren Urteko Kontuak fiskalizatu ditu.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia bete dela egiaztatzea aurrekontu, langileria eta ondasun eta zerbitzuko kontratuetan.
- Kontularitzakoak: urteko kontuak ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatzea. Sozietateari urtero egiten diote auditoria bat; honenbestez, gure lana auditoreen lan paperak berrikustera mugatu da eta hala behar izan denean, egoki irizitako proba osagarriak egin ditugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

Sozietatea 1999ko ekainaren 10ean eratu zen. SPRI Taldeko kide da, STC-ELS SA sozietatea buru dela, eta EAEko Administrazio Orokorrak % 99,1eko partaidetza du.

2017ko abenduaren 31n akziodunen osaera honakoa da:

Akziodunak	Euroak milakotan	
	% partaidetza	Zenbat.
SPRILUR, SA (*).....	% 51,00	5.861
Gipuzkoako Foru Aldundia.....	% 24,50	2.816
Apattaerreak Industriagunea SL (**).	% 24,50	2.816
GUZTIRA	% 100	11.493

(*) STC-ELS SAK % 94ko partaidetza du Sozietatean eta EAEn Administrazio Orokorrak % 6koa.

(**) Tolosaldeko 20 udalek % 100eko partaidetza dute.

EAEn sozietate publiko den aldetik nortasun juridiko propioa du eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaiei dagokienez, berariaz aplikagarri zaizkion xedapenek arautzen dute eta horiei aurka egiten ez dietenetan, zuzenbide pribatuak arautzen du, EAEHONALTBren III. Idazpuruaren IV. Kapituluaren agindutakoari jarraikiz.



TAILSAren helburua da Tolosaldeko eskualdean jarduera ekonomikoak sustatzea Apattaerreka inguruan industria-poligono bat garatuta, honako hauen bidez:

- Legediak onartutako zeinahi bide baliatuz, lurzorua eta beroni atxikitako jabetzak erostea jarduera garatzeko.
- Lurraren hirigintzako sustapena hiri-plangintzako agirien erredakzio bidez eta urbanizazio eta kudeaketa, birsailkapen eta konpentsazio proiektuen bidez edo hirigintzako legediak aurreikusten duen bestelako zeinahi molde baliatuta; hori guztia jarduera ekonomikoak finkatzera emana.
- Urbanizazioa gauzatzea eta pabiloiak, industriarako eraikinak eta eraikin osagarriak eraikitzea hirugarrenei eskualdatzeko edo ustiatzeko.
- Lurzoruaren, pabiloen eta industria-eraikinen kudeaketa edo eskualdaketa bidez, jabetza osorik eskualdatu arte.

TAILSA Industrialdeak Programan dago sartua eta helburua da enpresa-jarduera laguntzea eta industriak dauden udalerrietako baldintza sozioekonomikoak hobetzea.

Eratu zenez geroztik Tolosaldeko Apattaerreka eskualdeko industria poligonoaren garapenera emana egon da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SAK zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SAren 2017ko ekitaldiaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2017ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, hor jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 KONTABILITATEA

- Aktibo ez arrunteko “geroraturako zergen aktiboak” idazpuruak jasotzen du 2009ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren oinarri negatiboaren kontzeptuan zenbatetsitako 55.401 euroren kuota. TAILSak dituen galera errepikariak aintzat hartuta, zalantzakoa da oinarri hau geroko ekitaldietan konpentsatzeko aukera izatea; honenbestez, kopuru hau desgaitu egin beharko litzateke.

III.2 KONTRATAZIOA

- TAILSak ez ditu EAeko Kontratuen Erregistroan erregistratu ekitaldian gauzatutako kontratuak, EAEn sektore publikoko kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 52. eta 55. artikuluetan agintzen denaren aurka.
- 2017an 50.000 eurotik gora formalizatu zen kontratu bakarraren espedientea aztertu dugu (ikus A.8) eta ikusi dugu ez dagoela kontratuaren balio zenbatetsirik eta ez dela pleguan justifikatu kontratuaren ezaugarrien arabera hautatu den esleipen-prozedura, Kontrataziorako Barne Aginpideetan 50.000 euroz gainerako kontratuentzat ezarritako betekizuna.



IV. URTEKO KONTUAK EGOERAREN BALANTZEA

		Euroak milakotan	
	Eransk.	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		1.989	1.675
Ibilgetu materiala.....		188	200
Ibilgetuko inbertsioak	A.2	1.740	1.414
Epe luzeko finantza-inbertsioak		6	6
Geroratutako zergagatiko aktiboak.....		55	55
AKTIBO ARRUNTA		7.398	8.136
Izakinak	A.3	6.672	6.727
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	A.4	206	491
Taldeko enpresetan eta kide-tuetan eginiko epe laburreko inbertsioak.....	A.5	390	826
Eskudirua eta bestelako aktibo baliokideak		130	92
AKTIBOA, GUZTIRA		9.387	9.811
ONDARE GARBIA		9.310	9.659
Funts propioak.....		9.310	9.659
PASIBO EZ-ARRUNTA		33	43
Epe luzeko zorrak		30	32
Gerorat. zergarengatiko pasiboak		3	11
PASIBO ARRUNTA		44	109
Merkataritzako hartz. eta kobratzeko beste kontu batzuk		44	109
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		9.387	9.811

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

		Euroak milakotan	
	Eransk.	2017	2016
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	A.2	86	145
Indarreko sustapenetan eta eraikitako eraikinetan izakinen bariazioa	A.3	(9)	(186)
Hornidurak	A.3	(177)	86
Ustiapeneko bestelako sarrerak.....		39	35
Langileria-gastuak.....	A.6	(119)	(119)
Ustiapeneko beste gastu batzuk	A.7	(128)	(121)
Ibilgetua amortizatzea		(54)	(34)
USTIAPENAREN EMAITZA		(362)	(194)
Sarrera finantzarioak.....	A.4	6	15
Gastu finantzarioak		(1)	-
EMAITZA FINANTZARIOA		5	15
EMAITZA ZERGA AURRETIK		(357)	(179)
Etekinen gaineko zerga.....		8	2
EKITALDIAREN EMAITZA		(349)	(177)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA

	Euroak milakotan	
	2017	2016
1. SARRERA ETA GASTU AITORTUEN EGOERA		
A) Galera eta irabazien kontuaren emaitza	(349)	(177)
SARRERA ETA GASTU AITORTUAK GUZTIRA	(349)	(177)

	Euroak milakotan				
	Kapitala	Erreserbak	Aurr.ekit. emait. neg.	Ekitald. emaitza	Guztira
2. ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA, GUZTIRA					
SALDOA 2015EKO ABENDUAREN 31N	11.493	1.161	(2.752)	(66)	9.836
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	-	(177)	(177)
Ondare garbiaren bestel. aldaketak					
2015eko ekitaldiaren emaitzaren banaketa.....	-	-	(66)	66	-
SALDOA 2016KO ABENDUAREN 31N	11.493	1.161	(2.818)	(177)	9.659
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	-	(349)	(349)
Ondare garbiaren bestel. aldaketak					
2016ko ekitaldiaren emaitzaren banaketa.....	-	-	(177)	177	-
SALDOA 2017KO ABENDUAREN 31N	11.493	1.161	(2.995)	(349)	9.310




Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA

	Euroak milakotan	
	2017	2016
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik	(357)	(179)
Emaitzaren doiketak	230	24
Ibilgetua amortizatzea.....	54	34
Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak	186	-
Zuzkiduren aldaketak.....	(5)	5
Sarrera finantzarioak.....	(6)	(15)
Gastu finantzarioak.....	1	-
Kapital arruntean aldaketak	(321)	(37)
Izakinak	(348)	(221)
Zordunak eta kobratz. bs.e knt. b.	148	185
Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz.	(62)	(67)
Beste aktibo eta pasibo arrunt batzuk	(57)	63
Beste aktibo eta pasibo ez arrunt batzuk.....	(2)	3
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	49	46
Interesengatiko ordainketak.....	(1)	-
Interesengatiko kobrantzak.....	6	15
Mozkinen gaineko zergengatiko kobrantzak.....	44	31
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(399)	(146)
Desinbertsiogatikoko kobrantzak	437	161
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	437	161
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	38	15
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	92	77
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	130	92





ERANSKINAK

A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

2017ko ekitaldian ezargarria den araudi nagusia honako hau da:

- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapitalezko Sozietateen Legeari buruzko Testu Bategina onesten duena.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, EAEONALTB onesten duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEren Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 2/2017 Legea, apirilaren 11koa, 2017ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena.
- 1994ko abenduaren 28ko Agindua, Kontabilitate Plan Orokorra ibilgetuko enpresetara egokitzeko arauak onartzen dituena.
- Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 733/2010 Agindua, martxoaren 25ekoa, inguruabar jakinetan jarduten duten enpresa publikoen kontularitzako alderdiak onartzen dituena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, SPKLTB onartzen duena.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 5/2015 Errege Lege-dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, Merkataritzako Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen Dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari Eta Gobernu Onari Buruzkoa.

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez, SPKLTBren arabera, TAILSak aginte esleitzaileraren izaera du eta kontratuak pribatuak dira. Europar Batasuneko gutxieneko mailak (erregulazio harmonizatuari lotuak) gaintzen dituzten kontratuak prestalanari eta esleipenari dagokionez, berariazko araurik ezean, SPKLTBk arautuko ditu. Europar batasuneko gutxieneko maila horiek gaintzen ez dituzten haiek onartutako eta kontratatzailearen profilean argitaratutako kontrataziorako barne jarraibideak aplikatu beharko dituzte esleipenean. Kasu guztietan publikotasun, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta ez bazterkeria printzipioak gorde beharko dira.

Langileak kontratatzeari dagokionez, sozietate publikoa den aldetik, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetara meneratua dago.

A.2 IBILGETUKO INBERTSIOAK

Hona hemen xehakapena eta kontu-mugimenduak 2017an:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	16.12.31	Izakinetara		17.12.31
		eskual. (ikus A.3)	Zuzkidura	
Kostua	1.549	368	-	1.917
Lursailak	311	98	-	409
Eraikuntzak	1.238	270	-	1.508
Amortizazioa	(36)	-	(42)	(78)
Narriadura	(99)	-	-	(99)
GUZTIRA	1.414	368	(42)	1.740

Ibilgetuko inbertsioak Apattaerreka poligonoko I. faseko lau bulegotan eta bost industria-nabetan egindakoak dira, errentamendura emanak. Ekitaldian sortutako 86.006 euroren diru-sarrerak “Negozio zifraren zenbateko garbia” idazpuruan erregistratzen dira.

2017an izakinetara aldatu da (ikus A.3) industria-nabe baten kontularitzako balioa, 368.526 euro, zeinaren gainean hiru urteko errentamendu kontratua izenpetu baita.

A.3 IZAKINAK

Hona hemen izakinen xehakapena eta kontu-mugimenduak 2017an:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	16.12.31	Ibilgetuko inberts. eskuald.		17.12.31
		Gehikuntzak	(ikus A.2)	
Kostua				
Erositako eraikinak	589	270	(270)	589
Lursailak eta orubeak	522	98	(98)	522
Ziklo luzeko abian dauden eraikuntza-lanak	5.395	127	-	5.522
Eraikitako eraikinak	1.842	4	-	1.846
KOSTUA GUZTIRA	8.348	499	(368)	8.479
Narriadura				
Erositako eraikinen balio-narriadura	(53)	(46)	-	(99)
Ziklo luzeko abian dauden eraik.-lanen balio-narriad.	(1.358)	(70)	-	(1.428)
Eraikitako eraikinen balio-narriadura	(210)	(70)	-	(280)
NARRIADURAK GUZTIRA	(1.621)	(186)	-	(1.807)
IZAKINAK GUZTIRA	6.727	313	(368)	6.672

Abian dagoen ziklo luzeko eraikuntza-lana Apattaerreka Poligonoko II. faseari dagokio eta, batik bat, 2011n erreka desbideratzeko egindako lanei; baita, 2011tik 2017ra bitarteko ekitaldietan gauzatutako betelan eta trinkotze-lanei ere.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gainerako izakinak dira Apattaerreka Poligonoko I. faseko urbanizatutako bi lursail eta zenbait lokal eta pabiloi.

2017ko erositako eraikinen eta lursailen eta orubeen altak, 368.526 eurorenak, berreskuratutako industria-nabe batenak dira, 2008an izenpetutako erosketa-aukerako errentamendu-kontratua suntsitu ostean. Kontratu hau salmenta modura erregistratu zen ekitaldi horretan eta honenbestez, kontratua eten denean kobratzeko zeuden kontuak - 152.075 eurorenak- ezabatu dira (ikus A.4).

Nabe hau hiru urteko aldirako alokatu da 2017an eta honenbestez, balioa ibilgetuko inbertsioetara eskualdatu da.

Galera eta irabazien idazpuruko “hornidurak” idazpuruak honako kontzeptu hauek besarkatzen ditu:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	2017	
Hornidurak	368	
Ibilgetuko inbertsioetara txertaturiko eraikinak	(368)	
Hirugarrenek egindako obra eta zerbitzuak	131	
Erositako eraikinen balio-narriadura	46	
GUZTIRA	177	

“Izakinen bariazioa” idazpurua hauetan zati-banatzen da:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	2017	
Izakinen bariazioa	(131)	
Abian dauden ziklo luzeko eraikuntzen obren balio-narriadura	70	
Eraikitako eraikinen balio-narriadura	70	
GUZTIRA	9	

A.4 MERKATARITZAKO ZORDUNAK ETA KOBRAZKEKO BESTE KONTU BATZUK

Hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	31.12.17	31.12.16
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak epe luzera	100	260
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak epe laburrera	47	187
Zerga arruntengatiko aktiboak (Sozietateen zergaren atxikipenak)	41	44
Ogasun Publikoa BEZarengatik zordun	18	-
GUZTIRA	206	491

“Salmenta eta zerbitzuen emakidagatiko bezeroak” idazpuruaren saldoak dira 2008tik 2014ra bitarteko ekitaldietan izenpetutako erosketa aukera ematen duten bost errentamendu kontratatutik abenduaren 31n kobratzeko dagoena, zeinak salmentagatiko sarrera modura



erregistratu baitziren izenpetu zirenean, errentan emandako ondasunak izakinetatik baja eginez.

2017ko otsailean 2008an izenpetutako beste erosketa aukera ematen duen errentamendu kontratu bat eten da, zeinaren kobratzeko zenbatekoa kontratua eten zen datan 152.075 336.378 eurorena zen (ikus A.3).

Eragiketa hauen finantza-sarrerak, 5.971 euro 2017an, sortzapenaren arabera erregistratzen dira.

A.5 TALDEKO ENPRESETAN ETA KIDETUETAN EGINIKO EPE LABURREKO INBERTSIOAK

TAILSA SPRILUR Taldearen Diruzaintza Zentralizatuaren Sistemari sartu zen 2003an eta horren arabera, sozietate filialek soberako banku-saldoak SPRILUR SA sozietate nagusian irekitako kontu korrontean sartzen dituzte. Idazpuru honek TAILSAREN aldeko saldoa kontu korronte zentralizatuan jasotzen du.

A.6 LANGILERIA

Honako hauek dira langile gastuak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2017	2016
Soldata eta ordainsariak	94	94
Gizarte Segurantzaz.....	25	25
GUZTIRA	119	119

2017ko ekitaldiko ordainsari-igoera orokorra % 1ekoa da 2016ko ekitaldiko ordainsari osoen aldean.

Donostiako Epaitegiko lan-arloko aretoaren epaien ondorioz, baliogabe geratu da 2015eko uztailearen 31z geroztik 2010ean egindako soldata-murrizketa. Sozietateak 2015 eta 2016ko ekitaldietako atzerapen kontzeptuan 4.116 euro ordaindu ditu eta 2017ko ordainsariak doitu ditu.

2017an 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren % 48,89 ordaindu da, uztailearen 13ko Legegintzako Errege Dekretua aplikatuta kendu zena, aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa. 2015 eta 2016an ordainsari honen gainerakoa ordaindu zen (% 51,11).

Sozietateak lan kontratu mugagabea duten bi langile ditu.

A.7 USTIAPENeko BESTE GASTU BATZUK

Hona hemen epigrafe honen xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2017	2016
Konponketak eta artapena.....	3	3
Profesional independenteen zerbitzuak	59	37
Aseguru primak	2	2
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak.....	1	-
Hornidurak.....	2	2
Jabe-erkidegoen gastuak.....	19	20
Bestelako zerbitzuak	11	12
Zergak	24	45
Merkat. eragiketen ondorioz kredituen narriaduragatiko galerak.....	7	-
GUZTIRA	128	121

“Zerbitzu profesional independenteak” kontzeptu pean gerentziako zerbitzuen 18.383 euro jasotzen dira, Bidasoa Oarsoko Industrialdea SAK fakturatutakoak, izan ere bi sozietateek gerentea partekatzen dute, aipatutako industrialdean kontratua duena.

A.8 KONTRATUEN ANALISIA

2017ko ekitaldian formalizatutako 50.000 euroz goitiko kontratu bakarra aztertu dugu:

2017ko ekitaldian formalizatutako 2. mailako (50.000 euroz goitikoak, KBAen arabera) kontratu bakarra aztertu dugu:

2017ko ekitaldian formalizatutako kontratu txiki bakarra aztertu dugu:

KONTZEPTUA	Mota	Proz.	Euroak milakotan		
			Esleipen zenb.	Exekuzioa 2017	_Akatsak_
Tolosa eta Ibarako lursailetan Apattako ibarrean hornidura, garraio, betelan eta lurra trinkotzeko obrak	Obrak	PGN	64	57	A

PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua

AKATSAK	Zenbat.
A Ez dago balio zenbatetsirik, ez baliatutako prozeduraren justifikaziorik ere.	64





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

TOLOSALDEKO APATTAERREKA INDUSTRIA LURRA SA-REN FISKALIZAZIO-EMAITZEI BURUZKO ALEGAZIOAK 2017KO EKITALDIA

I. SARRERA

Tolosaldeko Apattaerreak Industria Lurra Saren 2017ko ekitaldiko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko asmoz, sozietateak horri lotuta aurkeztu dituen alegazioak eta justifikazioak erantsi zaizkio txosten honi. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak zentralizatu ditu horiek guztiak.

III. BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

III.1 KONTABILITATEA

“Zerga geroratuengatik aktiboak» aktibo ez-korrontearen epigrafeak 55.401 euroko kuota jasotzen du, 2009ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri negatiboagatik. TAILSak behin eta berriz dituen galerak direla eta, zalantzan jartzen da hurrengo ekitaldietan oinarri hori konpentsatu ahalko den; beraz, zenbateko hori desaktibatu beharko litzateke.”

Hurrengo ekitaldietan zenbateko hori aplikatzeko aukerari dagokionez, sozietatearen urteko emaitzen bilakaera aztertu da.

Horrekin lotuta, aipatu behar da, adibidez, 2018ko ekitaldian, Tolosaldeko Apattaerreak Industria Lurra SAk mozkinak lortu dituela, eta «zerga geroratuengatik aktiboak» aplikatu direla.

Jakina, zenbateko hori etorkizunean izango duen bilakaeraren arabera desaktibatuko da, galerak eraginda.

III.1 KONTRATAZIOA

“TAILSAk ez ditu inskribatu EAEko Kontratuen Erregistroan ekitaldi horretan zehar egin dituen kontratuak; baina inskribatu beharra ezartzen da uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa) 52. eta 55. artikuluetan.”

Sozietatea kontratazio-datuak Kontratuen Erregistrora sartzeko prozesuan dago. Kontua laster konpontzea eta erregistratu gabeko erosketarik ez egotea espero da.

“2017an formalizatutako kontratu bakarraren -50.000 euro baino gehiagokoa-espeditentea aztertu dugu (ikus A.8), eta ikusi dugu ez dagoela kontratuaren balio estimaturik ez justifikaziorik kontratuaren ezaugarrien arabera hautatutako adjudikazio-prozeduraren pleguan; eta, Kontrataziorako Barne Jarraibideetan ezartzen den bezala, beharrezkoa da 50.000 euro baino gehiagoko kontratuetarako.”



Kontratu hori 2017an indarrean zegoen Kontratuen Legearen (3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena) publizitaterik gabeko prozedura negoziatu batean sartzen da.

Zera agintzen zen, zehazki:

138. artikulua. Esleitzeko prozedura.

1. Herri-administrazioek egiten dituzten kontratuak kapitulu honetako arauen arabera esleituko dira.
2. Kontratuak esleitzeko, eskuarki, prozedura irekia edo prozedura mugatua erabiliko da. 170. artikulutik 175.era arteko kasuetan, biak barne, prozedura negoziatua baliatu ahal izango da, eta 180. artikuluan zehaztutako kasuetan, berriz, lehia-elkarrizketa.

170. artikulua. Kasu orokorrak.

Herri-administrazioek egiten dituzten kontratuak prozedura negoziatuen bidez esleitu ahal izango dira honako kasu hauetan, hurrengo artikuluetan kontratu mota bakoitzerako ezarritako baldintzak betez:

- a) Aldez aurretik aplikatutako prozedura ireki, murriztu edo lehia-elkarrizketaren bidezkoetan proposamenak edo eskaintzak arauz kontrakoak edo onartezinak direnean honako kausa hauetakoren batengatik: gaitasunik gabeko enpresaburuek aurkeztutakoak izategatik; eskaintzetan zergeri dagozkien betebeharrak, ingurumenaren babesari dagozkionak eta lan-baldintzei dagozkienak –119. artikulua aipatzen ditu– ez betetzeagatik; aldaerak edo hobekuntzak aurkezteko baldintzak urratzeagatik; edo balio anormalak edo neurrigabekoak sartzegatik, betiere kontratuaren jatorrizko baldintzak funtsean aldatzen ez badira.
- b) Salbuespenezko kasuetan, kontratuen ezaugarriak edo dakartzaten arriskuak direla eta, prezio osoa aldez aurretik zehaztu ezin denean.
- c) Prozedura ireki edo murriztu bat aplikatu ondoren eskaintzarik edo hautagairik aurkeztu ez denean, edo eskaintzak egokiak ez direnean, betiere kontratuaren hasierako baldintzak funtsean aldatzen ez badira. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, txosten bat bidaliko zaio Europako Batzordeari, hark eskatuz gero.
- d) Baldin eta, arrazoi tekniko edo artistikoengatik, edo eskusiba-eskubideak babestearekin zerikusia duten arrazoiengatik, kontratua enpresaburu jakin bati baino eman ezin zaionean.
- e) Baldin eta kontratazio-organoak ezin aurreikusi dituen eta berari egotzi ezin zaizkion gertaerek eragindako premiazko larrialdi batek eskatzen badu kontratua lehenbailehen betetzea, 112. artikulua arautzen duen presazko tramitazioa aplikatuz lortu ezin delako.
- f) Kontratua sekretua edo erreserbatua izendatu denean, edo kontratua gauzatzeko segurtasun-neurri bereziak ezarri behar direnean indarrean den legeriaren arabera, edo Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babestu behar direnean eta halaxe adierazi denean 13.2.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- g) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 346. artikulua eremuan sartzen diren kontratuen kasuan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Zera adierazten zuen lehiaketaren karatulak 3. puntuan:

“3. Kontratua prestatzeko eta adjudikatzeko araubide aplikagarria eta erregulazio harmonizaturik gabeko kontratua prestatzeko eta adjudikatzeko eskumena duen jurisdikzio-ordena”

170.d) artikulua eta hurrengo artikulua; azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren («SPKLTB») 191. artikulua eta Tolosaldeko Apattaerrika Industria Lurra SA-TAILSaren Kontratazioko Barne Jarraibideak («KBJ»).

Jurisdikzio zibila».

Esan beharra dago lehiaketa «Apattako ibarbidean lurra hornitzeko, garraiatzeko, betetzeko eta trinkotzeko» kontratazio oso espezifiko bati zegokiola (sozietateak duela urte asko kudeatzen du lan hori).

Arazoa da eskualdean egiten ari diren obretan sobera dagoen lur kantitate handia lortu behar dela, Apattako ibarbidean dagoen lur-desnibela konpentsatu ahal izateko.

Sozietateak uste zuen ezin zela lizitazio arrunt bat egin prozedura ireki baten bidez, baizik eta, edonola ere, prezioa gehiegi ez igotzeko hurbil aurki zitezkeen hornidurak izan behar zirela. Horregatik, eskaintza ekonomikoa eskatu zieten inguruan obrak egiten ari ziren kontratistei.

Hori guztia aurreko arauaren 170. artikuluan. azaldutako kasuistikan sartzen da.


Kontratuaren balio zenbatetsiari dagokionez, zera adierazten zuen karatulak 7. puntuan:

“7. Lizitazioaren gehieneko aurrekontua:

Ezin da zehaztu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 170. artikuluan araututakoaren arabera; beraz, lizitatzaiileek proposatu behar dute euren eskaintza ekonomikorik onena”.

Laburbilduz, 2017ko arau nagusiari helduta, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bat hautatu zuten, uste zutelako bideragarria eta egokia zela euren beharrianak betetzeko.

Gainera, bi eskaintza jaso zituzten (guztira, hiru eskatu zituzten): bata, lur metro kubiko bakoitzeko 8,90 eurokoa, eta bestea (irabazlea), lur metro kubiko bakoitzeko 2,14 eurokoa (beraz, bestearen laurdena). Sozietatearen iritzian, aurkeztu ziren eskaintzek sozietatearen interesak babesteko aukeratutako prozeduraren espezifikotasuna eta egokitasuna berresten dute.





ABREVIATURAS

CAE	Comunidad Autónoma de Euskadi.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
IIC	Instrucciones Internas de Contratación.
STC-ELS, SA	Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA.
TAILSA	Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra, SA.
TRLCSP	Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TRLPOHGPV	Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.



I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (en adelante el Tribunal), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988 y en el Plan de trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado las cuentas anuales del ejercicio 2017 de Tolosaldeko Apattaerreaka Industria Lurra, SA (en adelante TAILSA).

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legales: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, personal y adquisición de bienes y servicios.
- Contables: conformidad de las cuentas anuales con los principios contables que le resulten de aplicación. La Sociedad se encuentra auditada, por lo que nuestro trabajo ha consistido en una revisión de los papeles de trabajo de los auditores, realizando, en su caso, las pruebas complementarias que hemos considerado necesarias.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis de la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe del informe denominado “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

La Sociedad se constituyó el 10 de junio de 1999. Forma parte del Grupo SPRI, encabezado por la sociedad STC-ELS, SA, participada en un 99,1% por la Administración General de la CAPV.

La composición del accionariado a 31 de diciembre de 2017 es:

Accionista	Miles de euros	
	% Participación	Importe
SPRILUR, SA (*).....	51,00%	5.861
Diputación Foral de Gipuzkoa	24,50%	2.816
